

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4689

EBAZPENA, 2023ko urriaren 3koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, Gasteizko Mendien Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2110015) handitzeko dekretu-proiektua jendaurrean jartzen duena.

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 28ko Aginduaren bidez, aurretiazko onarpena eman zaio dekretu-proiektuari, Gasteizko Mendien (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta hura kontserbatzeko neurriak onartzeko dena, eta 148/2015 Dekretua aldatzen duena, zeinaren bidez «Gasteizko Mendi Garaiak» Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen den (ES2110015).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoa betez, jendaurrean jartzeko eta administrazio publikoei eta gizarte-sektore interesdunei entzuteko epea ireki behar da, azaroaren 26 arte, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 22.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea dekretu-proiektua, Gasteizko Mendien (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta hura kontserbatzeko neurriak onartzeko dena, eta 148/2015 Dekretua aldatzen duena, zeinaren bidez «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzen den, azaroaren 26 arte, iragarki hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, dokumentazioa aztergai egongo da epe horretan, bai egoitza elektronikoan (https://www.euskadi.eus/web01-tramite/eu/contenidos/informacion_publica/inf_1189216/eu_def/index.shtml) bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian:

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila.
Eusko Jaurlaritza.
Donostia kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 3a.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA.